


ttüpi-ttapa

1994ko Urriak 20 • 144. zenbakia

Elkarrizketa

Txomin PERY
zikiro erretzailea



FORMAKUNTZA ETA
DIBERTSIFIKAZIOA



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

JAKINARAZTEN DA:

1994.eko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratuak ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoitua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak ditzuztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1994.eko azaroaren 30ean bukatzen da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31a arte luzatuko da, %5aren erretegia aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez, %20aren erretegiarekin kobratuko da.

Bortzirieta, 1994.3ko urriaren 3an, PRESIDENTEAK

8,5
%
T.A.E.

3 URTEARAKO
GARANTIZATUTA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

DATUAK

❖ Txomin Pery Zugarramurdirin bizi den zikiro erretzaile adintsuena da. 87 urte ditu.

❖ Gaur egun, zikiro egunean kanpotarrak dira besta egiten dutenak eta Zugarramurdikoek besta antolatzen egiten dute lan.

❖ Garai batean berriz, herriko jendea zen nagusi eta Urdazubi, Baztan, Sara eta Ainhoako batzuk ere hurbiltzen ziren.

❖ Lehen, bazkaltzeko bakoitzak ereman behar zituen trapu, nabal eta baso bat -edo aunitzek zatoa-. Ez zen gehiagorik behar. Arno barririk ere izaten ziren, norbera zerbitzatzeko.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
KORO IRAZOKI

Txomin PERY:

«Zikiroa erretzeko manera hau indioengandik ikasi zuen aitak»

TTIKITAN ARGENTINATIK ETORRIA, ZEIN DIRA ZURE HANGO OROITZAPENAK?

Sei urterekin etorri nintzen handik eta ez naiz deusetaz oroitzen. Gurasoek barkoz etorri ginela erraten zuten eta Bordele aldera ailegatu ginela. 1913a zen eta gurasoak, arreba bat eta ni etorri ginen. Anai bat Argentinan hil zitzaigun eta gainerakoak hemen sortu ziren.

ZERGATIK PREZISKI ZUGARRAMURDIRA?

Gurasoak hemengoak baitziren. Aita Gaztainaldean sortua eta ama Salaberrikobordan. Biak gaztetan Argentinara diru egitera ganak ziren; han 23 urte pasatu ondotik 'Barrantxea' erosi zuten eta berek maite zuten xoko huntarat etorri ginen bizitzera.

NOLA ERRETZEN ZEN ZIKIROA GARAI HAIETAN?

Nere aitak ekarri zuen Zugarramurdira zikiroa erretzeko manera hau, berak Argentinako indioengandik ikasia. Orduan bestetan bere lagunentzat prestatzen zuen, eta orduko zikiroetan ez ziren 20-25 bat lagun



baino gehiago izanen. Bezperan baserrietaragan eta lehendik enkargatutako 4 urteko zikiroak erosi eta hiltzen ziren; zikiro hauen tripakiak erretzaileek gosaltzeko jaten zituzten zikiro egunean. Lehen gizonezkoen besta izaten zen eta emazteak bazkal aitzinean salda dastatzera

bakarrak agertzen ziren.

NOIZ ERRE ZINUEN LEHENBIZIKO ZIKIROA?

Ez naiz xuxen oroitzen noiz izanen zen. Aitarekin batera pittaka-pittaka gaztetatik ikasi nuen, berari laguntzeko esku-makil bezala erematen baininduen. Eta gero neorre aritzen naiz. Zugarramurditik kanpo ere aritua naiz, 15 urtez Ibarako San Bartolome bestetan; eta baita noizpait Baztanen eta Frantziakoan ere.

NOIZ UTZI ZENION

ZIKIROA ERRETZEARI ETA ZERGATIK?

Ez dut burutan noiz utzi nuen, behar bada duela hamabortz bat urte? Zaharra naiz. Gero Jexux eta gazte hauek hasi ziren.

NOLA USTE DUZU ERRETZEN DELA ZIKIROA GAUR EGUN?

Bon, lehenago ez ziren bildotsak erretzen, zikiroa zen eta zikiroa ere ongi erretzen bada xamurtzen da, ez da batere zaila. Gaur erretzen den haragia ere goxoa izaten da, dudarik gabe.

► «Bazkal ondotik, jendea sobera mozkortu baino lehen, antolatzaileek leze gaintetik kontatzen zuten zenbat lagun ziren bazkaltzen, kontuak atera eta banaka kobratzen zen»

BASERRIEN ETORKIZUNA DIBERTSIFIKAZIOAN OINARRITUKO DA

Nekazal sektorearen egoera larriak erronka berri baten aurrean jarri ditu zonako baserriarrak: produktu bakar batetara intentsiboki lotzeak ez du etorkizun ekonomiko garbirik. Hortaz, produktu ezberdinetan saiatu beharra dago, eta horretarako, poliki-poliki baserriko diru iturriak dibertsifikatu egin beharko dira.


gaurkotuak eta modernizatuak dauden baserrien kasua alde batera utzita, zonako nekazal esplotakuntzen 'azpiegitura ahula eta nekazal sektorearen kualifikazioa eskasa' dira Fermin Maeztu TKI-ITGko Formakuntza Areako koordinatzailearen ustez, nekazal sektoreak orohar dituen alde-rik ahulenak.

Zonako egoera sozio-ekonomikoari orokorrean begiratu, Maezturen ustez badaude halere aipatzea merezi duten alde onak ere. Horietako bat, giza baliabideekin erlazionatua dago. Izan ere, 'zona honetan jendea bizi da, eta baita jende gaztea ere'. Bigarrenik, sektore ekonomiko desberdinen arteko osagarritasunak duen



egokiera ere azpimarragarria da. Fermin Maeztuk dioenez, 'Berregituratuak dauden baserriak izan ezik, gainerakoek beharrezkoa dute industrietik edo turisмотik edo bertze bideren batetik etorriko den diru-iturri osagarrien laguntza'.

Zentzu honetan, nekazal sektorearen iraupena bertze sektore ekonomikoek izanen duten bilakaera eta etorkizunaren baitan dago neurri batean. Erran nahi baita, industriak indar haundia hartuko badu, jendeak utzi egingen dituela baserriak, baina bertzenaz, orain dagoen bezala industriak kiki-kolo segitzen baldin badu, jendeak mantendu egingen dituela baserriko aktibitateak ekonomikoki interesatuko zaiolako. Azken finean, zonako ekonomiaren garapena integrala izatea lor-



BERRIARENTZAT OSAGARRI BEZALA, ETORKIZUN GARBIA IKUSTEN ZAIO BARATZANTZA INTENTSIBOARI. EZKER ALDEKO ARGAZKIA JUANSENEAN ATERIA DA, ITGK DONEZTEBEN DUEN NEKAZAL ZENTRUAN.

TESTUA

JOXEMANUEL IRIGOIEN

tu nahi baldin bada, sektore guztiak bultzatzea beharrezkoa izanen da.

AKTIBITATE OSAGARRIEN BILA

Europako Nekazal Politika-ren Erreforma indarrean sartzeak, baserrietako ekonomiari kalte nabarmenak ekarriko dizkio. Arrazoi horretan oinarriturik, baserriko ekonomian lagunduko duten aktibitate osagarrien berri eman nahi zaie baserritarrei. Bainan ez bakarrik diru-iturri osagarriak izaten ahal diren aktibitateen berri emanez, baita aktibitate berri hoietan hasteko baserritarrak prestatuz eta formatuz ere.

Hortan ari da, errate baterako, Teknika eta Kudeaketa Institutuetako Formakuntza taldea (ITG-Formakuntza) azken urteotan. Kontua zera da; baserrietako ekonomiari laguntzeko irabazbide desberdinak sortzea eta betiko aktibitateari, behi esnearen produkzioari errate baterako, aktibitate osagarriak gehitzea. Modu honetara, aktibitate osagarriak sortuz, baserri eta nekazal esplotakuntzei errentagarritasun gehiago ateri nahi zaie.



Fermin MAEZTU
Teknika eta Kudeaketa Institutuan (ITGn) Formakuntza Areako koordinatzailea

«Nekazariak ere profesionalki formatu beharra daukate»

■ Nola baloratzen duzue Formakuntzan orain arte izandako esperientzia?

□ Formakuntza epe luzera egiten den lana da, inbertsio bat azken finean. Jakina da, gaur ikastarobatetara etortzen denak ez duela bihar bertan aplikatuko ikasi edo ikusi duena, bainan dena dela, gauza nabaria da formakuntza ikastaroetan hasten denak dinamika honetan engantxatu egiten dela.

Bertze edozein profesionalen modura, nekazariak ere profesionalki formatu beharra

daukate, eta urtero denbora bat hartu ikastaroetara etortzeko.

■ Zein ikastaro dira arrakasta gehien dutenak?

□ Ez dago zehazki bat aipatzerik. Edozein dela ikastaroa, bakoitzak bilatzen dio bere probetxua. Aurtengoan ere hasia dugu abelzantza-formakuntza ikastaroa Juan-senean. Hogei ikasletik gora ditugu, jende gaztea batez ere. Honetaz aparte, 'esnekien gozogintza' landuko duen ikastaroa ere hasi berri-berria dugu.

NEKAZAL DIBERTSIFIKAZIOARAKO IKASTAROAK

Aunitz dira dibertsifikazio horretan sartzen ahal diren aktibitate osagarriak. Horregatik, baserritar bakoitzak ikusi beharko du zein den bere aktibitate nagusia osatzeko hobekien egokitzen dena, berak lehendik dituen baliabideei probetxu osoa kendu ahal izateko horretarako in-

bertsio haundiegirik egin gabe. Momentuz baratzte eta fruitugintzaz, abeltzantzaren aterabide desberdinetaz, agroturismoaz, produktu artesanaletaz eta bertze zenbait ikasketak tekniko eskaintzen diitu ITG-Formakuntzak batez ere baserritarrentzat intergarriak direnak. ■

SEKTOREAREN ANALISA

BEHI ESNEA: ESPLOTAKUNTZA AUNITZ, PRODUKZIO GUTI


Nafarroan dauden behi-esne esplotakuntza guztien erdia baino gehixeago, kasik zortzi-rehun, alderdi honetan daude. Esplotakuntza guzti horiek, halere, Nafarroako produkzioaren %20a egiten dute soilik. Esplotazio aunitz, gehienak tikiak eta guti produzitzen dutenak.

AUKERA HOBEAK ARDI ESNEAREKIN


Ardi-esnari dagokionez eta merkatuan dagoen eskaria kontutan hartuz, 'oraindik gora egiten ahal duen sektore bakarrenetakoa da' Maezturen ustez. Hala ere kontutan hartzeko da ardi-tegien tamaina tikiak eta duten mekanizazio maila exkasa. Nafarroako 128.000 ardi latxetatik 44.500 hemen daude, eta hauek, Nafarroako produkzio osoaren hirutik bata produzitzen dute.

ETORKIZUN GARBIA BARAZKIENTZAT

Zona ezin hobeki kokatua dago komertzializazio tokiak kontutan hartuz gero.



BASERRI BAKOITZEAN IKUSI BEHARKO DA ZEIN DEN BERE AKTIBITATE NAGUSIA OSATZEKO HOBEKIEN EGOKITZEN DEN AKTIBITATE OSAGARRIA, LEHENDIK DITUEN BALIABIDEI PROBETXU OSOA ATERATZEKO ETA INBERTSIO HAUNDIEGIRIK EGIN GABE.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.850 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TfNOA.: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Irijoien. **Publizitatea:** Miren Karnele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irijoien. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Joan Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Xabiel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igaabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Marta Curria, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo Susperregi.

primategia: Gertu (Oñati).

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian edierazitako erranen eta eritzien arantzukizunik

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramuri eta Sarako udalak, Borzizrietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Hauteskunde sindikalak Lesakako Laminategian

Errepresentazioa ELA eta LAB artean banatu beharko litzateke



Enrike LOPEZ
ELAko ordezkaria

Hauteskundeak aurreratzeaz gain, nahia, Planaren negoziazioan hasi baino lehen hautesleentzako iritzia jakitea garrantzitsua baitzen. Zerbait huts egin badugu ere—langileen artean 1 igotze—, pozteko emaitzak dira, delegatuak mantendu baititugu. Aitzinetik bagenekien ez zela aldaketa haundirik izanen, baina zerbait azpimarratzekotan, sindikatu ez abertzaleen beharrekada izanen zen. ELA eta LABen emaitzak ez dira harritzekoak, ongi lan egin baitugu. Harritzekoa, eurentzat ere, CCOO eta UGTren beharrekada eta ESK igotzea izan da. Gauza aunitz aldatu ez bada ere, botua hemengo sindikatuari eman zaie, zentzu horretan polarizatu egin da. Emaizta hauek ikusita errepresentazioa (lehendakaria eta idazkaria) ELA eta LABen artean banatu beharko genuke, baina hori sindikatu bakoitzaren estrategiaren arabera ikusiko da.

ELAren monopolioa bukatu da ezker sindikalaren alde



Julen MITXELTORENA
LABeko ordezkaria

Komitearen panorama aunitz aldatu da Orain arte ELAK monopolizatzen zuen komitea, eta maiz 'Cuadros' eta UGTren laguntzarekin. Orain korrelazio hori aldatu da ezker sindikalaren alde (LAB-ESK-CCOO). Hemendik aitzinera protagonismo gehiago izanen du ezkerrek. Emaizta hauek esperogentuen, gure aktuazioa azken lau urteotan zuzena eta garbia izan baita eta horren ondorioa izan da botu tentsiaren aldaketa. Halere, beti izaten da eszeptizismo pixko bat, normalean linea ofizialak irabazten baitu. Zorionez ez da horrela izan Produkzio sektorekoek eta ebentual beteranok sindikatu bakoitzaren jarrera ezagutzen dute eta horren arabera eman dute botua. Orain atarako den komitea garbiagoa izanen da, partehartze handiagoa izanen da, ez da monopoliorik izanen, anitza bai zik. Langileek komitearengan behar duten konfiantza berreskuratu nahi dugu.

Aipagarriena ezkeraren igokada eta UGT desagertzea



Pello ASTIZ
ESKko ordezkaria

Orokorrean ezkerrentzako igokada inportantea suposatuta dute hauteskunde hauek. LAB igo egin da eta gu ere bai, ez botu absolutotan, baina bai portzentatua, bitatik lau ordezkari pasatuz. Kontutan hartu behar da 300 langile gutxiago zeudela zentsoan eta botu kopurua mantentzeak ordezkariak gehitzea suposatzen zuela. UGTren desagertzea ere nabarmentzekoa da. Komitearen gehiengoak urteotan eraman duen jokabideaz—komenioan eta fabrikako jokoaren prepotentzia dexente erabili dute—ohartu da jendea eta kastigo botua eman du. Halere, langileen egoera orokorra aztertuz gero ez dago harroegi egoteko arrazoirik. Orain arteko joera aldatu behar dela uste dugu, langileen partizipazioa bultzatuz. Berrestrukturaketa planaren aitzinean ere jokabidea aldatu behar da eta lehen baino egoera hobekoan gaude plan horri aurre egiteko.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitorenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



**Hegoalderantz
doan uso bat
zara...**

Maribeltxa UNANUA

Baztango Bertso Eskola
Neurria: Hamarreko Haundio

*Urri aldean hotzarengandik
aldegitoko asmoak
astinduarazten dizkigu guri
nahitanahiean hegoak
pentsa ezazu baldin bagara
ehun ateratakoak
hoien erdiak izanen gara
eskopetaz hildakoak
uso guztien helmuga guztiz
aldatzen baitu tiroak.*

*Nahiz ta bizia jokutzen dugun
hor hegaka ibiltzean
egoera hau ez da aldatzen
hemendik joan ezean
bizia nekez jasaten dugu
negu hotza iristean
mugatutako etorkizuna
dugu usoek sortzean
eta sarritan amaitzen dugu
ehiztarien platerrean.*

**Goizuetako
etxebizitza
berriak**

Goizuetan badaude etxe pila hutsik daudenak eta horregatik erortzen ari direnak, eta ez zaharrak bakarrik, berriak ere bai. Bagaude gazte asko etxebizitza baten beharrean aurkitzen garenak, baina ezin dugueskuratu, hutsak dauden etxe edo pisuen nagusiek ez dituztelako saldu nahi, edo bestela, dirutza ikaragarria eskatzen dutelako. Arrazoi horregatik babes ofizialeko 18 pisu egitera doa Udala, herriko gazteek edo benetan beharrean daudenek hauetako bat eros dezaten. Baina dirudienez, herriko gazteok aukerarik gabe gelditzeko arriskuan gaude, zeren eta gazte eta benetan beharrean dagoen jendeaz gain, bada go beste jende bat ordaintzeko jarri diren errezitasunak aprobetxatu nahiean eskatzaileen zerrandan apuntatu direnak. Lanpostu fijoak eta jornal ederra daukatenak, etxebizitza bakarrean ezezik bitan bizia egiten dutenak, nahiz ofizialki etxea familiakoren baten izenean egon, egitan beraienak

dituztenak...

Jende honek eskuratzen baditu pisu hauek (eta aukera asko dauzkate horretarako) etxebizitza hutsen kopurua gehitu egingo da eta herriko gazteek berriz ere pisurik gabe egon beharko dugu. Eta zer egin dezakegu honen aurrean? Isilik egon? Deus egin gabe gelditu? Herri honen etorkizuna gazteengan dago, eta guk ez badugu herrian gelditzeko aukerarik zer gertatuko da?

INIGO ELIZEGI (GOIZUETA)



**Jesus Javier
Nietori epaiketa**

Urriaren 26an Madrilgo Audiencia Nacionalean Aresoko semea den Jesus Javier Nieto Baranda euskal preso politikoa epaituko dutela jakinarazi nahi diegu TTIPI-TTAPAKO irakurleei. Momentu gogor honetan berekin egoteko eta gure adiskidetasuna eta elkartasuna erakusteko, Madrilera autobusa antolatu da.

Jesus Javier kide eta bizilagun ona da eta herri honetako kultur, giza eta jai ekitaldiak bultzatzen parte hartu eta lagundu du beti. Bere delitu bakarra

bere herria maitatzea eta Euskalerrriaren askatasunaren alde borrokatzea dela uste dugu.

MILAGROS CABALLERO,
ARESOKO BIZILAGUN TALDEA



**Non daude
lesakarrak**

Ikastaro berria hasi eta ilusio haundiz joan ginen Lesakako Euskara Batzordera, aurten ere euskara aitzaki dela eta, zenbait lan egiteko asmoz. Geure euskara gaixoa oraindik ere eri baitago, denon laguntza behar baitu, egiten ditugun ahalgin guztiak gutti baitira. Hura gure sorpresa bilerara joan eta hiru katu agertu ginela ikustean, hiru bai, ez bortz eta ez sei, hiru baizik. Dirudienez inor gutti kezkatzen da euskararengatik. Dena ongi al dago? Haurrak eskolara bidali ditugula eta, aski al da? Euskaltegia ere ari dela eta aski? Ez dugu uste eta horregatik dei egiten dizuegu hurrengo batzordera, azaroaren 4ean arratsaldeko 5etan eginen den bilerara. Ea lagun mordoxka bat bilitzen garen.

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA (IKA)



LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
- ⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, © 637030 - LESAKA


E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.


Bidasoa K / 82 - 31780 BERA

Tel. - Fax: 948. 63 10 27



**ZIALDO
OSTATUA**

LESAKA



El Diario Vasco 94-X-11

«Bortziritan izan badago industriarik, bainan, beharrezkoa da ekonomia bultzatuko duen motore berri bat bilatzea, eta hori turismoa izaten ahal da».

Pedro PEREZ
Bertiz Parizuego Turistikoa
El Diario Vasco 94-X-11

«Sakonki eragin nahi du LABek zuzendari-tzaren aurrean lantegiaren etorkizuna ziurtatzeko».

Julen MITXELTORENA
LABeko ordezkaria
EGIN 94-X-2

◆ **Zer duzu nahiago: liburu bat irakurri edo aldizkari bat?**

❖ Liburu bat, entretengiarriagoa da.

◆ **Tabakodenda edo papertegia?**

❖ Papertegia. Tabakoarena hotza da.

◆ **Bezero gaztetxoa edo heldua?**

❖ Gaztetxoak arras ideia garbiekin etortzen dira. Grazia egiten dit.

◆ **Urteko sasoirik politena?**

❖ Udazkena. Bero gutiago egiten du eta egunak oraindik argiak dira.

◆ **Denbora librean zer egiten duzu?**

❖ Irakurri.

◆ **Eskualdeko herririk politena?**

❖ Besta egiteko Lesaka. Bertzenaz, gehienak politikak dira.

◆ **Igande goizetan zer?**

❖ Loegin. Pena lan egin behar izaten dudala.

◆ **Dendan euskararen beharrik sentitu duzu?**

❖ Bai, izugarria. Auniztan ezin dut nahi dudana erran.

◆ **Oporretan nora?**

❖ Edozein tokira... ez dut oraindik oporrak hartzeko astirik izan.

◆ **Ilusioa egin zizun Mallorkako bidaia ematea?**

❖ Bai. Pena ez dela inor agertu.

◆ **Merkatarien Elkarteak sariak ematen segituko du?**

❖ Oraindik erabaki gabe dago, bainan zerbait izanen da.



Pilar JAUREGI

Legaria Liburidenda-Estankoa

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

Harategi - Urdaitegia

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,

**dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,**

**bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta atak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

Bera

Lurraren Egunak zortzigarren edizioa beteko du igandean

Barazki erakusketa eta gasna lehiaketan parte hartzeko gonbitea luzatu dute antolatzaileek

ttipi-flash

XIV. Lizuniagako igoera


Urriaren 30ean izanen da. Izen ematea debalde da eta goizeko 9,30etatik aitzina eginen da Iamotenean. Lasterkariak 4,9km. egin beharko dituzte Eztegarra pilotalekutik Lizuniagako gainera. Bukaeran sari banaketa eta hama-bitakoa partehartzaile guztiei. Marrikak hoberenarentzat bildotsa izanen da, eta errekorra gainditzeagatik (Garin, 16'13") 15.000 pta. Zalain Jatetxeak emanak.

Sutea 'Gurea'n
Urriaren 9tik 10-erako gauean, sute tiki bat gertatu zen Gurea lantegian.

KRISTINA BOAN

Urriaren 23an Lurraren Egunak zortzigarren urtea beteko du. Egitarauak, azken urteotakoaren bide beretik segituko du. Lehenengo orduetan barazki eta eskulangileen erakusketak alde batetik eta gasna lehiaketak bertetik emanen diote hasiera egun osorako prestatuak dauden ekitaldiei. Honetaz gain, Txibiri Dantza Taldeak, Bera-ko trikitiak eta Zizkuitz txarangak jarriko dute soinua eta dantza, eta bukatzeko, 'Pilota Erakusketa' ikusgai egonen da Kultur Etxean. Eguraldia portatzen baldin bada, ekitaldi guzti hauek Alzateko Plazan burutuko dira, eta bertez-naz, Alzateko Pilotalekuan.

Antolatzaileek, barazki erakusketa eta gasna lehiaketan parte hartzeko deia luzatu dute.



Akelarre Eguna eta Nafarroa Oinezeko afariak hainbat jende bildu zuen urriaren 8an


Heriotz mehatxuak jaso dituen Josu Goiari bere elkartasuna adierazi dio udalak

'ABC' egunkarian, Nafarroa Oinezeko gertakariekin harremanatu zuten Josu Goia, HBko zinegotzia, eta horren ondoren, heriotz mehatxuak hartu ditu telefonoz eta kartaz. Egunkari horretan

agertutakoa "guztiz faltsua" dela adierazi du udalbatzak eta aldi berean, ABC egunkariaren kontrako kereila bultzatzeko asmoa agertu zuen.

Udalak ahobatez onartutako idatziaren

arabera, honelako gertaerak ez errepikatze-ko "kuartela Bera erditik kentzea" aipatzen da. Jendez gainezka zegoen pleno aretoan, jasotako elkartasuna eskertu zuen Josu Goiak.



Josu Goia

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Alzate 28 • BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



ANSONEA JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA



Dantzari Txiki Egunak 210 bat dantzari bildu zituen

Herriko bi taldeekin batera, Hego Euskal Herriko bertze bortzek parte hartu zuten

AITOR AROZENA

Irain dantza taldeak antolatutako Dantzari Txiki Egunean Hego Euskal Herriko 210 bat dantzari bildu ziren eta eguraldi ederra lagun, ikuskizun bikaina eskeini zuten.

Lesakako Tantirumairu eta Irain taldeekin batera, Zarautzko 'Mollarri', Oñatiko 'Oinatz', Lezo, Bergara eta Arabako Dulantzi herrietako dantza taldeak dantzaz eta koloren bete zuten herria. Lehenik, Lesakako aurraskua eta bertsoen bidez eman zitzaizkien ongiatorria. Ondoren, dantzak herriko txoko guzietara ailegatzeko asmoarekin, taldeak banatu ziren eta karrizak beraien saioak egin zituzten. Azkenean, talde guztiak plazan bildu ziren. Bertan egindako dantza saioa hagitik polita izan zen, dantzari gehienek zazpi eta hamabi urte artekoak zirela kontutan hartzen badugu.



Irain dantza taldeak antolatutako Dantzari Txiki egunean 200 neska-mutiko baino gehiagok parte hartu zuten

Argazkia: AITOR

Basurde elkarteak bere 25. urteurrena ospatu zuen

Basurde elkarteak, urriaren 7tik 9rako asteburuan burututako zenbait ekitaldiekin ospatu zuen bere 25. urteurrena. Elkarte honetan, gastronomiaz gain, kirola bultzatu da nagusiki. Honela, 24 urtez Miguel Elizalde txirindula memoriale antolatu du eta Arku-

pe elkarteak sortu arte pilotaren bultzatzailea izan zen.

Horregatik, ospakizunetan ez dira pilota partiduak faltatu (Sanjurjo eta Lizardi palistak omendu zituzten). Mus eta plater tiraketa txapelketak, trakak eta otordu ederrak ere izan dituzte.



Jose Guillermo Ballester lehendakaria

ttipi-flash



Jose Emilio Txoperena 'Soltxan'ek

Pramoedya Ananta Toer idazle indonesiarren nobela bat ingelesetik euskara itzuli du. Txalaparta argitaletxeak kaleratu du 'Iheskaria' izenburupean.

Alkaiagako

industrialdera igarotzeko zubia 61,9 milioi pezetaren truke egingen du Mariez kurrena erakitzaileak. Zortzi eskeintzen artean berea zen merkeena.

San Fermin

Jubilatu elkartearen eguna ospatuko da igande honetan, urriak 23. Goizean kalejira txistulariekin eta meza. Bazkaria Koxkontan izanen dute eta ondotik musika. Txartelak urriaren 20a bitarte salgai.

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

JOSEMA RAMOS

Zolak akutzilatatu eta
barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bitirria 67 - Tfnoa: 637264

Etxalar

Uso sasoiari hasiera ederra eman zaio

Hilabete erdirako 35 dozenatik goiti harrapatuak zituzten sareetan

PELLO ETA ALBERTO

Eguraldia lagun dutela, hasiera ona eman diote sasoiari usazaleek. Urriaren 15erako 35 dozenatik goiti ba omen zituzten hartuak sareetan. Dena den, inguruotan badaude bertze 10 usategi Etxalarkoaren modura funtzionatzen dutenak. Joan den urtean, errate baterako, guztien artean 8.855 uso eta 462 txoloma hartu zituzten. Hoietatik 1.556 uso eta 159 txoloma Etxalarko Usategietan.

Idazkari berria

Jose Luis Legarra sekretarioa euskara ikastera joanen da 4 hilabetez, eta bere ordezkari Jose Larraoiz urroztarra etorriko da.



Ikastaroak

Bertze urtetan bezala, Eskulangintza eta Frutikultura ikas-

taroak hasiak dira. Bertzalde, Sukaldaritza ikastaroa ere hastekoa da Larraburuan Lesa-

kako Kasino jatetxeko Imanol Elizaldek emana. Ikastaro hau apiril-arte luzatuko da.

Etxalarko Usategiak izan ziren joan den urtean bertze usategiekin konparatuz bigarrenak sareetan harrapatutako uso kopuruari dagokionez.

Personaiak



Anabel Arburua Olagarai Xoraxuriko Borda Hemeretzi urte beteak, haurttikien zainketa-heziketarako ikasketak bukatu dituzu Eta orain bertze ikasketak hasi nahi dituzu, magisteritzakoak. Zergatik ikasten segitu?

Lanik ez dagoenez, etxean gelditu beharrean nahiago dut ikasten segitu.

Zergatik aukeratu duzu magisteritza?

Orain hasiko ditudan ikasketak orain artekoen segidakoak bezala dira. Orain arte ikasitakoa hiru urte arteko hurrei buruzkoa da, ondokoak berriz hirutik sei urte arteko hurrei buruzkoak izanen dira. Horrela lan aukera zabalagoa izaten ahal dut. Dena den, hiru urte arteko hurrekin lanpostua eskuratzeko ere, magisteritza tituluak erraztu egiten du bidea.

LORA DENDA

TXIRULA
 Bitria LESAKA
 627542
 DOMISAINDURAKO ESKEINTZA BEREZIA

ZALAIN

JATETXEA
 EGUNEKO MENUA ETA KARTA
 Zalain Auzoa
 ☎ 63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

BEKO ERROLA

Lore eta landareak
 Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
 LESAKA

KOXXKONTA

 Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
 Deitu erreserbak egiteko
 Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

HARITZPE

JATETXEA
KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
 Sukaldaritzarik hobereana xokorik politenean
 Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038
• ETXALAR (NAFARROA) •



Kultur Egun ederrak aurtengoan prestatu direnak

Garai bateko errebesten antzera, berriz ere bestak izanen ditugu urriroan

PATRI ARBURUA

Espero dezagun Kultur Egun hauetan jendearen partehartzea bestetan bezalakoa izatea. Izan ere, Euskara Batzordeak, Udalak eta Igantziko Biltokik izugarrizko egitaraua prestatu baitute Santu Guzien zubirako.

Hasteko, larunbatean (hilak 29), arratsko 8,30etan, Udazkeneko Biraren ekitaldi bat izanen dugu, Enrike Zelaiaren kontzertua. Igandean, 12etan, Añorga eta Igantziko dantza taldeak arituko dira. 4,30etan haurrek marrazketa eta zanko tailerra izanen dute, Auskalo taldearekin. Ondoren, 6etan Ardanbera fanfarrea arituko da plazan, Udazkene-



ko Birako ekitaldi bezala, hau ere. 8etan berriz, Anje Duhalderen kontzertua izanen da plazan. Astelehena 31n, 5etan Robin Hood filmearen emanaldia izanen da Biltokin. Ondotik, 7,30etan, batez ere gurasoei zuzendua,

hitzaldi bat izanen da toki berean "berdintasunean hezitu" gaiarekin. Asteartea leian, tresnazarren erakusketa izanen da Igantziko Biltokin egun guzian zehar. Beraz, tresnazarren bat baldin baduzue, eman Jun-

tako norbaiti. Akautzeko, arratsaldeko 7ean Biltokin gaztain jatea izanen dugu, Manolo eta Estitxu Arozena bertsolariekin. Hone-lako programarekin, ez zaitezte etxean kuzkurtuta gelditu! Gainera, den dena debalde da!

ttipi-flash

- ❖ **Eskolako kalefakzioa**
konpondu eta gasoilezkoa paratzeko dirulaguntza hartu du udalak Nafarroako Gobernutik.
- ❖ **50.000 pezetako**
dirulaguntza eman dio udalak bai abesbatzari baita dantza taldeari ere.
- ❖ **Botika**
egiten hasiak dira. Botikaria, medikua-ren etxean biziko da urte batez.
- ❖ **Bentako**
Maestraren etxea, Berrizaun bertako Mari Luz Telletxeak erosi du.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

LABEZAR
© 631076 • BERA

BOTXO
ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

SASKA
OSTATUA
LESAKA

HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR

JATETXEA

© 635290 • ETXALAR

ALBAR TETXEA
JATETXEA

HARAGI ETA ARRINETAN
ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 ©ra

Antoiu 26 • LESAKA



Ehizi denboraldia ez da lasai hasi bertako ehizturientzat


Meakan eta Urritzmeakan lau eskopeta kendu zituzten guardia zibilek urriaren 11n

GARBINE ETA ELIXABET

Ehizi denboraldia aspaldixkoa hasia da, baina ezin erran lasai hasi denik, Arantzako ehizturientzat behinpin. Joan den asteartean, urriaren 11n hain zuzen ere, Meakan eta Urritzmeakan goardia zibilak egon ziren, ehizturiak mendira zoazenean. Hauek adiztera eman dutenez, lau ehizturiri eskopetak kendu zizkieten, paperak eta eskopetaren fundaez eramateagatik. Bertzalde, hurrengo egunean, asteazkenean foralak izan omen ziren Bagatxarrean baina ez zen deus gertatu.

Cafés Baqué txapelketa

Cafés Baqué izeneko pilota txapelketa ai-



Goizeko lainoaren ondotik, ehizirako eguraldi ederra ekarri du urriroak
Arg.: ARTXIBOA

ttipi-flash

- ❖ **Ehizatzea galerazia**
Bulatxiki mendian ehizian aritzea debekatu du Nafarroako Gobernuak.
- ❖ **Itoizko urtegiaren kontra**
Arantzako udalak egindako azken udal batzarrean Itoizko urtegiaren kontrako mozioa onartu zen.
- ❖ **EGA prestatzeko**
aukera dago Bortziritako euskaltegian, egunero 2 orduz edo larunbatero 4 orduz.

tzinera doaie.

Joan den asteartean jokatu zen partiduan

Jon Agesta kanporatu zuten, 6-18 galdu ondotik. Rafa eta Ande-

rrek berriz, momentuz aitzinera segitzen dute. Anderrek 18-12 irabazi

zuen bere partidua eta Rafak 18-10. Ea urruti ailegatzaren diren.

IRUNGO errepiñoa - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

Abujardadoa Mazizoa
Zuhar antzekoa Txapetua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGEA
JATETXEA**

ATERPE
ALBERGEA

© 634179
ARANTZA

GOZOTEGI - JARONE

Itzea 3 • 630786 • BERA

INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN

AYLA

ARGAZKI DENDA

Bixente Taberna

- EZKONTZA ERREPORTAIK Argazkia eta Bideoa

Legia 4 • © 630597
BERA




310 lagunek parte hartu zuten karretera zaharreko bazkarian

Asteburu honetan, lera zakurren hirugarren laisterketa burutuko da Sunbilla eta Lesaka artean

JOSUNE ETA IXABEL

Urriaren 9an herri bazkaria ospatu zen lehengo karretera zaharrean. Hasieran ehun lagun ez baziren apuntatzen ez egitea pentsatzen zen baina azkenean 310 lagun animatu eta umore ederrean joan zen bazkaria. Joan den urtean bezain giro ona edo hobea izan zen. Bazkaria ere iaz baino hobea ateri omen zen, janaria hobea izateaz gain beroagoa izan baitzen. Urtetik urtera ikasten da eta datorren urtekoa bankete ederra izanen da seguraski. Izan ere, besta hau urtero egitea pentsatu da. Bertzela, pena litzateke herriko jendeak bakarrik parte hartzen duen besta ttiki hau



Aurtengo arrakasta ikusirik, urtero errepikatzeko modukoa da Karrika Nagusiko bazkaria

galtzea. Bildotsak eta ardoa Doneztebeko Juanito Mariezkurrenak jarri zituen eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiote lerro hauen bitartez. Baita besta hau egiteko mugitu diren eta lagundu duten herritarrei ere.

III. Lera Zakur laisterketa Lesaka eta Sunbilla artean

III. Lera Zakur laisterketa Sunbillatik Lesakara urriaren 22an eta 23an burutuko da. Larunbatean Lesakatik Sunbillara. Irteera 3,30etan eta 4,30ak

aldera ailegatuko dira Sunbillara. Igandean, goizeko 9etan ateriko dira Sunbillatik, Lesakara ordu bat beranduago ailegatzeko intentzioarekin.

❖ Egin mus txapelketa

Herriko Ostatuan jokatuko da aurtun ere. Bertan parte hartzeko izena emateko epea urriaren 22an bukatuko da eta bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 **DONEZTEBE**



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - **DONEZTEBE**



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



Ezpelura uhaldean ur-bideratzea eginen da

Zine denboraldi berriak, bertzalde, urriaren 29tik datorren urteko martxoaren 26ra iraunen du

TXEMA ETA KARMELO

Ezpelura erreka haunditzen denean Doneztebe sarreran sortu dituen eta sortzen ahal dituen kalteak ez gertatzeko bi paretak eginen dira, bata Mateoren etxe aldean eta bertzea Ameztiberri deitzen diren etxebizitzien aldean. Honetaz gain, 40 zentimetroko altura duen presa bat eraikiko da, uraren indarra guttitzeko.

Proiektuak 16 milioi pezetako kostua izanen du eta kopuru honen %75a, hauda, 12 milioi, Nafarroako Gobernuak ordainduko du.

Zine garaia

Zinearen garaia iritsi da eta azken urteotan bezala, larunbatero gauetz eta igandero bi emanaldi izanen dira. Urriaren 29an irekiko da eta martxoaren 26an akitu, denetara 23 pelikula izanen direlarik. Pelikulak bota ahal izateko aurten kamara



Eskolako frontoi aldera doaien bidean tuboak sartu dira

Arg.: Josu INZIARTE

edo tekniko berri bat hartuko da, gainontzeko bi langileak berriz, iaz aritu zirenak.

Eskolako lanak

aitzinduk dira da-goeneko eta zurgin lana falta da. Haurrei eta

haurrak ez direnei eragozpenak sortu dieten moldaketak hauexek izan dira: teilatua konpontzea, uralitaren gainean txapa gorria paratuz, goitik behera barrantik paretak xuritu eta gainerakoa margoitu, lehen irakasle la-

guntza zentrua zena Bigarren Hezkuntzarako (12-16 urte) egokitu, ate berriak paratu, komun berriak egin...

Honetaz gain, frontoi aldera doaien bidean tuboak sartu dira, urak gainetik ez joateko eta zola moldatu dute.

ttipi-flash

❖ Ihizirako kotoa

badu Doneztebek Sunbillako Kattagorri elkartearekin bat egin eta gero, herriak ez baitzuen eremu aski bere kotoa izateko. Oraingoan, 94 ehiztari baditu kotoak.

❖ Zirkulatzeak arauak

eta gehien bat, apartatzekoak errespetatzeko Herriko Etxeko bi langile gainean egon dira. Hasiera batean arauak kasu egiten bazitzaie ere, lehengo ohituretara itzuli da jendea.

❖ EGA ikastaroa

emanen da larunbatero eta lau orduz euskaltegian. Izena ematen ahal da oraindik 451555 telefonora deituz.

❖ Langarra Eguna

urriaren 8an ospatu zen.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



Zenbait pista moldatzeko 59,5 milioi eman ditu Nafarroako Gobernuak

Bordatara ailegatzea, mendi lanak errexago egitea eta sua mozteko erabiltzea dira honen helburu nagusiak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 59,5 milioi pezetako dirulaguntza eman du Malerrekako zenbait pista moldatzeko. Honela, Elgorriagako Burkaitza eta Zelaitako pistak moldatzeko 12,3 milioi eman ditu. Iturango Asurdi ingurura doazen bideak hobetzeko 29 milioi eman ditu eta Doneztebeko Oteixon ingurura ailegatzeko bideen moldaketarako bertze 18,2 milioi emanen ditu.



Urrotzko zortzi baserrietarako bideak moldatzen ari dira. Lanek 35 milioiko aurrekontua dute eta Larraioz-Arregi enpresa ari da Arg.: TXEMA

12,5 milioi zenbait herrietako mendien egoera aztertzeke

Beintza-Labaien, Urrotz, Oitz, Elkarrikoa eta Donamaria-Gazteluko mendien egoera -zenbat egur dagoen- aztertzeke proiektua-

ren idazketarako 12,5 milioi eman ditu Nafarroako Gobernuak. Aurten 1,5 milioi emanen dira eta datorren urtean gainerakoa.

Asistente sozial lanposturako 21 lagun aurkeztuko dira

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateko Gizarte zerbitzuan asistente sozial bezala lan egiteko asmoarekin hogeitabat lagun aur-

keztuko dira. Lehendabiziko proba, bihar ortzirala izanen dute Doneztebeko liburutegian., goizeko 10etatik aitzinera.

ttipi-flash

- ❖ **Zubieta**
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izanen da, azken plenoan hartutako erabakia-
ren arabera.
- ❖ **Urrotzko**
udalak, azken plenoan euskal preso politikoen eskubi-
deak errespetatzea eskatzen zuen mo-
zioari onespena eman zion.
- ❖ **Arkupeak elkarteak**
antolatutako gimnasia ikastaroetan 127 lagunek eman dute izena Malerrek-
an. Eskualde guz-
titan 325 izan dira animatu direnak.

ZUBIETA



Herriko Ostatuko taberna, jatetxe eta ostatu zerbitzuaren errentamendua esleitzeko lehiaketa irekiaren deialdia.

Xedea: Herriko Ostatuko taberna, jatetxe eta ostatu zerbitzuko errentamendua esleitzea.

Esleitzeko epea: 8 urte.

Nahitaezko kanona: 3.000.000 pezeta.

Hilabeteko errenta, hasierako prezioa: 80.000 pezeta.

Behin-behineko fidantza: 125.000 pezeta

Eskaintzak Zubietako Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztuko dira, NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hamar eguneko epearen barrenean.

Proposamenak, aurkezteko epea pasa ondoren eginen den Udalbatzan irekiko dira.

Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaleko Idazkaritzan.

Zubieta, 1994.eko urriaren 3an
Alkatea, Francisco Michelena Celayeta

ZUBIETA Pinuen enkantea



Udal honek, behar bezala baimendurik, salgai jartzen ditu ahozko posturen bidezko enkante irekian ondoko oihan probetxamendu hauek:

1. lotea.- 618 pinu insignis, 450 metro kubiko zur eta 110 metro kubiko egur egiten dutenak, 2.472.736 pezetatan tasatuak.

2. lotea.- 331 pinu insignis, 281 metro kubiko zur eta 50 metro kubiko egur egiten dutenak, 1.757.604 pezetatan tasatuak.

Enkantea Udal-Idazkaritzan eginen da, eguerdiko 12tan eta NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hamabortzgarren egun naturalean.

Enkantean parte hartzeko beharrezkoa da enpresa sailkapen agiria aurkeztea, baita enkanteko lotearen zenbatekoaren %2 ordaintzea.

Nafarroako Gobernuaren baldintzak eta Udalarenak, Udal Idazkaritzan daude.

Zubietan, 1.994eko urriaren 3an
Alkatea, Francisco Michelena Celayeta

Zubietara

Urriaren 29an folck musika kontzertua izanen da udaletxean

Nafarroako Gobernuak 36 milioi t'erdi emanen ditu lau baserrietarako pistak moldatzeko

AINHOA MUTUBERRIA

Nafarroako Gobernuak udalen eta kontzejuen laguntzarekin 'Udazkeneko Bira' antolatu du aurten ere. Ekitaldi horien barnean, Zubietarako bi musika emanaldi antolatua daude. Bata joan den larunbatean izan zen elizan, flauta eta kitarrak jotzen zuten bikote batekin, eta bertzea, 29an izanen da udaletxean folck musika talde batekin.

Herriko gazteek pentsatua zuten egun horretan jaia antolatzea abuztuko jaietan aterazena diruarekin, baina



Pistak moldatzeko laguntza izanen da

Artxiboa

dirudienez, azkenean hikorik egin. Ardura-

dunek besteen kolaborazioa espero zuten dena aurrera eramate-

ko, baina ia-ia inork parte hartu ez duenez ez da jairik eginen.

ttipi-flash

Zubietako Herriko Ostatua

Konkurtsu-subasta eginen da Herriko Ostatuarekin. Interesatua dagoenak udaletxetik pasatzen ahal da pliegoak bilitzeko.

49 milioi

pezeta gostako da Azkonzola, Azkara-tea, Iristekoborda eta Terminokobordarako pistak moldatzea. Dirutza horretatik 36 milioi t'erdi Nafarroako Gobernuak emanen du.



INFORMAZIORAKO TELEFONOAK

Malerrekako Euskara Zerbitzua
☎ 451746

Bortzirietako Euskara Zerbitzua
☎ 634125

Leitza-Larraun-Ulitzamako Euskara Zerbitzua
☎ 504400 • 610636

Zure abizen euskalduna euskal grafiaz!

Nahi izanez gero, zure abizen euskaldunaren erdal grafia aldatzeko aukera legala badaukazu, bere jatorrizko itxura berreskuratuz.

Honetarako zenbait tramite burutu beharko dituzu eta zure herriko Euskara Zerbitzuaren informazioa eta laguntza edukiko duzu. Horregatik, behar diren urratsak eman ditzazun animatu nahi zaitugu.



Hogeitabost ikasle ditu herriko musika eskolak

Horietatik hamazazpi instrumentoren bat jotzen ikasten ari dira

ESTEBAN AROZENA

Musika arloan gure herriak izan duen tradizio eskaxa ezaguturik harrigarria badirudi ere, eskoleko adinean dauden neska-mutikoen % 25 inguruak solfeoa ikasten du. Hauetatik 17 instrumentoren bat jotzen ikasten ari dira; seik pianoa, zortzik txistua eta hiruk trikitixa. Rosa Mari Olai-zolaren trikitixa eskolan ikasten dutenak gehitu behar zaizkio azken zenbaki honi.

Solfeoa ere ez dau- de denak kurso edo maila berean. Horrela, aurten matrikulatutako bostak "iniziazioan" daude; bederatzia preparatorioan; bost lehenengo mailan; bat bi-



Musika eskolan gustora ari dira ikasleak

Argazkia: Xabier Mikel

garrengoa eta bost bostgarrean.

Finantziaioari dagokionean esan gurasoek, udalak eta Nafarroako Gobernuak ordaintzen dituztela bertako gastuak, itxu-

raz behintzat hiru zati berdinetan banaturik. Halere, Gobernuak ez du irakasleen bideko gastuen portzentaiarik ordaintzen, gurasoen kuotei gehitzen zaio- larik diferentzi hori.

Kontu hauek denak zenbaketara igaroz, 706.000tik 733.000 pezetara bitarteko dirutza gostako zaio Herriko Etxeari musika eskola (bi aurrekontu ezberdin daude eta

ttipi-flash

❖ **Zaharren Eguna** ospatzeko heldu den igandea aukeratu du Umore Onako komisioak. Ohi den bezala kirol emanaldia, musika eta bertsorik ez da faltako, hainbat herri- tarrentzat hain berezia den egun honetan.

❖ **Gazte Asanbladak** hemen sekulan egin ez den ekintza bat eratu du hilaren 29rako: ping-pong txapelketa. Nahi duenak parte hartu dezake eta txapel- duna eta bigarrenaren sariak 5.000 eta 3.000 pezetakoak dira..

udalak oraindik ez omen du erabaki zein onartuko duen). Gurasoei berriz, hilean 1.900-2.000 pzta gostako zaie solfeoko kla- sea, eta instrumentoa- rena 2.300-2.400 pzta.



Industrialdea urbanizatzeko lanak luzerako doaz

Enpresaren bat interesatua omen dago bertan kokatzeko

JUANA M^a SAIZAR

Udalak aspaldi ekin zion bertako industri poligonoa bultzatu eta indartzeari. Noski, lehen beharra horixe zen, poligonoa egiteko leku apropos bat egitea. Lekua badakigu dagoene- ko eta lekua izanik, ura eta argia kondizio one- tan jarri behar. Urbani- zatu beharra dago, alegia. Dirudienez, traba asko xamar daude, alde batetik eta bestetik.



Obra hauen hasiera lu- zera doa, baina badugu itzaropena. Halere, po- ligono bikaina egin eta enpresak ez badaude, gaizki gabilta. Hone- tan ere ahaleginak egin behar dira enpresariak honara etortzen anima daitezen. Entzuna dugu hurbil ditugun enpresa bat edo beste intere- satuak daudela hemen koka- tzeko eta langile berriak behar dituzte- nean lehenak aresoar- rarak izanen omen dira.



Irusuko etxea nekazal turismorako erabiltzea nahi du udalak

Horretarako eskaerak, azaroaren 4eko eguerdia baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxean

JOSEBA AZPIROZ

Udalak Irusoko etxea nekazal turismo-rako erabiltzea nahi du. Hori dela eta, instalazio horiek ustiatu edo esplotatu nahi dituztenak, beren eskaerak azaroaren 4ko eguerdiko hamabiak baino lehen Idazkaritzan aurkeztu beharko dituzte, eskaintza ekonomikoa eta ustiapen planarekin batera. Etxearekin batera, ondoan dauden borda eta belar-soroa ere erabili ahal izango dira.



Euskal preso politikoaren eskubideen alde Leitza burututako ekitaldiek jendearen partehartze handia izan dute
Arg.: JOSEBA

ttipi-flash

❖ Udal zergak

Datorren urteko udal zergak %6eko igogerekin ordaindu beharko dira.

❖ Azienda katastroa

Aziendarik daukanak, Abeltzaren Aberastasuna kon-tatzeko orria (katas-troa), Udaletxeko bulegoan betetzera beharturik dago, azaroaren 1etik 30a bitarte.

❖ Lizarraga kalea

Pisinetatik Estazio aldera dagoen zonalde horretan bizitza bakarrekotxeak egin daitezken eta batzuek egiten ari direla kontutan hartuz, udalak izena eman dio kaleari: Lizarraga (paraje horren izen bera, hain zuzen).

Udal zinemako taberna hartzeko deialdia

Udal zinema denboraldia laister ireki behar dela eta, bertako tabernaren erabilera utzi behar da, 94-95 denboraldirako. Udalak ez du dirurik kobratuko erabileragatik, baina hori bai, zinemako taberna hartzen dutenek zinemaren gorbiketaz eta berogai-

lua piztu eta mantentzeaz arduratu beharko dira.

Taberna hartu nahi dutenentzako izena emateko epea urriaren 31ko eguerdiko 12etan bukatuko zaie. Izena ematerakoan, tabernaren esplotakuntzari buruzko txosten bat ere aurkeztu beharko da.

Ez da autoentzako biderik izango Usategietara

Ehiztarien Elkarteak Usategietara joateko autoentzako bide bat eskatu zion udalari. Luze eztabaidatu ondoren proposamenaren kontra azaldu zen udalbatza, ingurugiroarentzat komenigarriaz delakoan eta kotxeak mendi puntaraino heldu behar ez direlako.

UILko bi zinegotzik proposamenaren aldeko botua eman zuten, beti ere pista hori eskatu zutenen kontu egiten bazen.

Eraberean, ehiza garai bukatzen denean zuhaitzetan egindako kalteak ordaintzea eskatuko zaio Ehiztarien elkarteari.

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoak
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle



Ornozko mediku kontsulta berria urriaren 5ean inauguratu zuten

Herrikoekin batera, Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandozko ia 1.000 biztanle atendituko ditu

JOSEBA IGARABIDE

Urriaren 5ean inauguratu zen ofizialki Oronoz-Mugairiko mediku kontsulta berria. Ekitaldian, Baztan eta Oronozko alkateekin batera, Nafarroako Gobernuak Osasun saileko ordezkari zabal bat agertu zen, Calixto Ayesa kontseilaria buru zutela. Telletxea eraikuntza enpresak egin ditu lanak 9,8 milioitan eta bertze 1,6 milioi behar izan dira behar bezala ekipatzeko. Kontsulta honetan, Oronoz-Mugairiko biztanleekin batera Basaburuakoak atendituko dituzte Jose Antonio Rubio medikuak eta Mari Cruz Goñi erizainak.

Bertzalde, Oronozko lanekin segituz, suhiltzaileen etxeetako burnizko hesia kendu eta pasealeku berri bat zabaldu behar da, errepidea pasatu gabe Bertziko zubira joan ahal izateko.



Ornoz-Mugairiko mediku kontsulta berriari Vicente Sanzberro apezak eman zion bedeinkazioa Arg.: KARMELE

Elbete, Elizondo, Lekaroz eta Gartzaingo saneamendu lanak adjudikatu dituzte

Madrilgo 'Levelling I, S.L.' enpresak eginen ditu Baztango saneamendu lan osagarriak, udalak ahobatez erabaki zuenez. Elbete, Elizondo, Lekaroz eta Gartzainen (herrian eta Ariztegi auzoan) eginen ditu lanak enpresa horrek 113,2 milioi pezetaren truke.

Subastara bederatzita enpresa aurkeztu ziren, sei Nafarroakoak, Madrilgo bi eta Zaragozako berte bat. Horien artean merkeena arestian aipatutakoa izan zen, hasierako prezioetik (168.624.810 pezeta) %32,68a jeitsi baitzuen.

Lanak ordaintzeaz,

Baztango udala eta 'Navarra de infraestructuras locales' izeneko enpresa arduratuko dira.

❖ **Arraiozko** frontoia epe labur batean egin ahal izanen da elizaren sahetsean. Proiektua 66 milioikoa da baina aurrekontua jeitsi nahi dute.

ttipi-flash

- ❖ **Erdiz-Okoro** inguruko herri lurretan belagiak egiteko 11.574.763 pezeta jasoko ditu udalak Nafarroako Gobernutik. Horietatik ia 3 milioi terdi aurtan jasoko ditu eta 8 milioi pasatxo 1995ean.
- ❖ **1.500 bisitari** izan ziren Bertzen Pilarika Egunean.
- ❖ **Moble zaharren** konponketarako ikastaroa izanen da azaroa eta abenduan. Horretarako 67.000 pezetako dirulaguntza eman du udalak.
- ❖ **Guadalupe Zaldainek** eginen du San Francisco Javier ikastetxeko jangelaren garbiketara 373.497 pezetatan.
- ❖ **Jose Joaquin Apezetxea** izanen da Baztango bake epaile berria.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

Pierresenea OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAZKEN eta NEGUKO MODA

KONJUNTOAK • JERTSEAK
...eta behar dituzun konplementu guziak

ESKULANETARAKO MATERIALAK

Basaburuako mutil eta neska arpanlariak txapeldun

Lehenek bigarren mailako herriz herri proba irabazi zuten eta Ana Gartxitorena eta Lorentxi Eugik Nafarroako arpana txapelketa

PABLO MENDIBURU

Basaburuako herri kirol taldeko mutilek Nafarroako herriz herri probako bigarren mailan txapeldun gelditu dira. Bigarren taldeari, hiru minutuko diferentzia atera zion. Datorren denboraldian maila hobereanean parte hartuko dute. Bertalde, Ana Gartxitorena eta Lorentxi Eugik lortu zuten emakumezkoen arteko Nafarroako arpanlari txapelketa irabaztea. Aipatu behar da Lakuntzako nesken aurka borroka haundia izan zutela, nabiz eta azkenean hemengo neskek irabazi.

Ezkontz hilabetea

Zigan urrian lau heritar hurbildu dira eli-



Ana Gartxitorena eta Lorentxi Eugi (ezkerrean) arpana txapeldun berriak

zara baietza ematera: Mari Jose Korteia (urriaren 15ean), Juan Bautista Igoa eta Xabier Elizalde (urriaren 15ean) eta Mari Tere Osakar (urriaren 22an). Haue-
taz aparte, bertze bi

gazte ere ezkondu dira aurtan. Hilabete honetan Almandozko Yoli Altzuarte, Berroetako Maria Pilar Migeltorena eta Anizko Francisca Barrenetxe ezkondu dira. Zorionak.

Zigan Pilarika eguneko ohitura bete dute. Prozesioa elizatik, Egozkueko ermitaraino, han meza eta ondoren hameketakoa eta trikitalariak. Gero, buelta ere prozesioan.

ttipi-flash

❖ Sekulako apostua

burutu zen Anizko bestetan. Basaburu taldeko lau mutil (Andoni, Kiko, Os-kareta Mikel) bertze bortzen kontra (Juan Andres, Angel, Asier, Aitor eta Iñigo) aritu ziren arpana, koxkor biltzen, laisterka eta zakuarekin. Bat gutiago izan arren lehenbizikoek irabazi zuten jokoan zeuden 25.000 pezetak.

❖ Orabideatik

Elizondora ikastera heldu diren bortz haurrek garraibide bat izatea eskatu dio udalak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur sailari. Orain arte, egunero hamazazpi kilometrogin behar dituzte autobus geltokiraino.

MINDEGIA eta BULEGOAK:
Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENENKO SALMENTA

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

- * Koroaiak, zentroak, loreak...
- * Krisantemoak prezio onean
- * Sasoiko landareak:
Barnerako eta kanporako:
Azaleak, ziklamen
pentsamenduak, pitimini
larrosak, diplodemiak...

LOREDENDA • GARDEN CENTER

SOULE

GURUTZE ETA HILARRIAK

☎ 453038 ARIZKUN
☎ 123572 IRUÑA

XORROXIN KONTZERTUAK

10 urtez
belarria goxatzen

DOMISAINDU rako enkarguak garaiz egin

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE

SASKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



Hameka senar-emaztek Zilarrezko Ezteiak ospatu zituzten

Zugarramurdi eta Urdazubin, guztira hamabortz izan ziren 1969. urtean esposatu zirenak

KORO ETA MARGARI

Zugarramurdi eta Urdazubin 1969. urtean hamabortz bikote ezkondu ziren. Hori-tatik hameka juntatu ziren gan den irailaren 8an Zugarramurdi beren Zilarrezko Ezteiak ospatzeko. Haien-tzakoz Don Javierrek meza berezi bat eman zuen. Ondotik, argazkirako ere prest agertu ziren. Gero, Erreku-txean sekulako bazkaria egin ondoren ez ziren kantu eta bertsuen faltan gelditu, eguna umore ederrean akituz.



Zugarramurdi eta Urdazubin 1969an ezkondu ziren hamabortz bikote-tatik hamekak elkarrekin ospatu zituzten Zilarrezko Ezteiak


Animaleko basurdea

Sueldeiko-borda aldean animaleko basurde bat hil zuten. Behin tripak atera eta garbituta, kanalean 120 kilo eman baitzituen. Ez da marka txarra. Hor egon zen ondoko egunetan Iriarteko esnetegiko hotz-gailuan zintzilikatuta ikusi nahi zuenarentzat. Aurten ehiztariak kontent daude, ez direlako herri-rik urrundu behar basurdeak bilatzeko, inguruan aunitz daude eta. Aitzineko astean ere lau hil zituzten.



AROZ BERRI


GURE ZERBITZUAK ZURE ESKURA



SALMENTA
profesionalak



ERREKANBIO
originalak



ZERBITZU
garantizatua



ASISTENTZIA
azkarra

Zaldubia Poligonoa • Tfnoa: 581021 • IRURITA

Sara

15. Lapurtarren Biltzarra urriaren 2an iragan zen Uztaritzen

Urriaren 23an bertzalde, Uso Besta ospatuko da Besten elkarteak antolatuta

MIXEL ETA JACQUELINE

Milakobatjende bildu zen Uztaritzen 15. Lapurtarren Biltzarren ospatzeko. Goizeko ibilaldian hameka karrosek parte hartu zuten, beti bezala gure eskualdeko kezka nagusienak azalduz. Gure herriko gazteek bestetan plazaratu itsas unztia agertu zuten "Sare pelagikorik ez" lema-rekin.

Zazpiak Bat

Herriko dantza taldeak bere kurtsoen ordutegia agertarazi dauku.

Ez dakiten helduentzat, asteazkenetan, arratseko 9etan. Treba-



Saratarren karrozak arrakasta handia ukan zuen Uztaritzen

tuentzat berriz, ortziraletan ordu berean. Taldeko kideak larunbatero arratsaldeko 4etan.

Xehetasun gehiagoren jakiteko ikus Sophie Elizalde, Odile Ayezedo Solange Mariluz.

Adinekoak Canariasen

Azkaine eta Sarako adinekoek elgarretatu-

rik (Azkaindik 22, Saratik 12), zortzi egun zoragarriak pasatu dituzte Canarias-etan. Ikusiak ikusi, nahiz urrikirik batere ez izan, adituen arabera iduri luke Euskal Herriko xokoak bezain politik ez dutela nihun kausitu orai artean. Ez da bertzeena ikustea eta ikastea bezalakorik, nork berea hobeki estimatzeko.

Uso besta

Urriaren 23an eginen da, besten elkarteak antolatuta. Goizean pilota partidua eta mez. Arratsaldean pilota desafioa eta indar jokoak.

Urdazubi

Urriaren 8an elgarretaratu ziren Zilarrezko Ezteiak egin dituztenak

Arkupeak elkarteak antolatu dituen gimnasia ikastaroetan hemeretzi lagunek eman dute izena

ALIZIA OLAIZOLA

25 urte ezkondukin egin dituzten Urdazubi eta Zugarramurdiko senar-emazteak urriaren 8an elgarretatu ziren. Eguerditan meza izan zuten eta gero bazkaria. Bikote gehiago ere behar omen zuten izan, baina 11 elgarretaratu ziren, horietak 7 Urdazubikoak: Patxi Sansiñena eta Milagros Diharassarry (martxoaren 1ean ezkonduak), Mateo Arandia eta M^a Josefa Mihura (martxoak 18), Martin



Urrezko Ezteiak ospatu zituzten hameka bikoteetatik zazpi Urdazubikoak ziren.

Jose Barrenetxe eta M^a Angeles Olaizola (apirilak 12), Fernando Mujika eta Eusebia Barrenetxe (maiatzak 7), Pedro Fagoaga eta Mikaela Elizalde (abuztuak 13), Agustin Etxeberria eta Kontxita Etxaide (irailak 20) eta Robert Leait eta Rosi Mihura (urriak 4).

◆ Gimnasia

ikastaroak antolatzeko asmoarekin dago Arkupeak elkarteak. 19 lagunek –jubilatua eta gazteak– izena eman dute.

EZKONTZAK

Pedro Mutuberria Baleztena eta **M^a Josefa Irazoki Etxarri**, Zubieta eta Berakoa, irailaren 30ean.

Juan M^a Etxenike Iriarte eta **M^a Isabel Arizaleta Ainziart**, Narbarte eta Azpilkuetakoa, irailaren 24ean.

Juan Carlos Obregozo Mendikoa eta **M^a Jose Gortea Sarratea**, Elso eta Zigakoa, urriaren 1ean.

Gabriel M^a Zabala Gonzalez eta **Amaia Pikabea Maia**, Doneztebe-koak, urriaren 1ean.

Fernando Arraztoa Etxartea eta **M^a Nieves Martiarena Urrutia**, Elizondokoak, irailaren 30ean.

Fco. Maria Noble Goikoetxea eta **Dominika Azpiroz Ubiria**, Hernanikoa eta Oiartzungoa, urriaren 1ean.

Alberto Arbizu eta **Sophie Ahiotz-behere**, Angelu eta Sarakoa, urriaren 8an.

JAIOTZAK

Julen Arozena Almandoz, Goizuetakoa, urriaren 5ean.

Iñigo Gamio Ekioiz, Berroetakoa, irailaren 24ean.

Amaia Astiz Izeta, Elizondokoa, urriaren 5ean.

Ibai Juanena Aleman, Urrozkoa, abuztuaren 21ean.

Jabier Diez Andres, Lesakakoa, irailaren 29an.

Arantxa Dargelez, Sarakoa, buruila-
ren 27an.

Daniel Calvet, Sarakoa, buruila-
ren 24ean.

Aimar Lastiri Aranbarri, Iturengoa, irailaren 11n.

Mikel Onsalo Lezea, Aresokoa, urriaren 2an.

HERIOTZAK

Josefa Rubio Balerdi, Berakoa, urria-
ren 4ean, 96 urte.

Julian Zubillaga Etxeberria, Leitzakoa, irailaren 26an, 80 urte.

Isabel Zestau Zestau, Leitzakoa, irailaren 24ean, 86 urte.

Beatriz Urmeneta Lazkano, Elizondon, urriaren 4ean, 84 urte.

Telesfora Bereau Matxikote, Lesakan, urriaren 9an, 87 urte.


Geronimo Olaetxea Telletxea, Iturengoa, irailaren 4ean, 90 urte.

Jose Etxepeteleku Iantzi, Iturengoa, irailaren 18an, 68 urte.

Pilar Apezetxea Zubiri, Goizuetakoa, urriaren 10ean, 60 urte.

Maria Mitxelena Pikabea, Arantzakoa, urriaren 9an, 86 urte.

Miguel Sagaseta Graziarena, Donamarian, irailaren 9an, 71 urte.




Pilar Apezetxea Zubiri

Pello Apezetxearen arreba

*Nere hortzetan itzaliko den
azken antsia bertze
batenetan loratuko den
lehen irria izanen da.*

TTPI-TTAPAKO
lankideak

ELKAR AUTOESKOLA



LAISTER ZABALIK BULEGO BERRIA

Albistur 39 • LESAKA



BERA

KULTUR ZIKLOA 94 • CICLO CULTURAL 94

AZAROAK 19, LARUNBATA

ANTZERKIA: "PECATA MINUTA"

LEKUA: Berako Kultur Etxean

ORDUA: Gaueko 22.00etan

PREZIOA: 400 PZTA.

OHARRA: 16 urtetatik beherakoek ez dute sarrerik ordaintzen



BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



BEHARREZKO TELEFONOAK



- SOS Nafarroa eta
- Urgentziak 088/061
- Osasun Zentruak
- Elizondo 452367 / 580235
- Doneztebe 450300
- Lesaka 637428 / 637336
- Leitza 510248 / 510573
- Nafarroako Ospitaleak
- Nafarroako ospitalea 102100
- SSko urgentzi
- zerbitzua 246750
- Virgen del Camino
- erresidentzia 109400
- Gurutze Gorria 226404
- Gipuzkoako Ospitaleak
- Irungo ospitalea 614600
- Gipuzkoako ospitala 460299
- Erresidentzia 453800
- Anbulatorioak
- Irun 630264/621106
- Anbulantziak
- Oitz 450242/450342
- DYA
- Lesaka
- (larrialdiak) (943) 464622
- Doneztebe
- (larrialdiak) 171717
- FUNERARIA
- Doneztebe 637404
- Elizondo 580924
- Lesaka 637404
- Suhiltzaileak
- Oronotz-Mugaire 592255
- Garraioak
- Bidasolarra 631150
- Baztanesa 580129
- Leitzaran 515018
- Aberiak:
- Iberduero 450335/450336

ELA sindikatua mantentzen da lehen indar bezala Laminacionesen

ELA-STV izanena bertze lau urtez eskualdeko lantegi haundienan, Laminacionesen, ordezkari zabalena izanen duen sindikatua. Urriaren 3an egindako hauteskundeetan lehendik zituen 9 delegatuak mantendu ditu. LAB eta ESK dira delegatu kopurua igo duten sindikatua. CCOO, Kuadroak eta UGTk berriz, bana galdudute eta azken honek ez du ordezkari izanen enpresa komitean.

Langile kopuruaren jeitsiera dela eta, botu

SINDIKATUA	BOTU KOPURUA			DELEGATUAK	
	1990	1994	GORABEHERA	1990	1994
ELA-STV	663	502	-161	9	9
LAB	317	365	+48	5	6
ESK	170	163	-7	2	4
CCOO	195	136	-59	3	2
C/Cuadr.	210	124	-86	3	2
UGT	73	41	-32	1	0

	1990	1994
Zentsoa	1905	1586
Botuak	1645	1369
Partehartzea %	%86,3	%86,3

Langile kopuruaren jeitsieraren ondorioz, LAB da kopuru absolutotan botuak irabazten dituen sindikatu bakarra. ESK-CUI Sek 7 boto galdu arren 2 ordezkari irabazi ditu.

emaile kopurua ere jeitsi da. Honela, LAB sindikatua da zerbaki absolutotan botuak

irabazi dituen bakarra. Botu guttiago izan arren, botua eman dutenen portzentaia due-

la lau urte bezalaxe mantendu da. Beraz, zentsoaren % 86,3ak eman du botua.



Arkupeak elkarteak antolatutako 'Pilota-ren Eguna'k 300 jubilatu inguru bildu zituen Elizondon. Bertan pala, laxoa eta erremonete partidu berdinuak ikusi ondok, bazkaria eta dantzaldia izan zuten Gartzaingo Baztan hotelean.

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio



AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
☎ 943 - 61 50 55

Olatz
Relojeria
Joyeria

GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK

Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.

Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia
SAN PEDRO, 3 - Hondarribia
☎ (943) 64 56 78

Ikaspilota: Euskal pilotaren kultura ikastetxeetara eramateko saioa

Pilotaren ezagutza eta jolaskera ezberdinak neska-mutil guzietan eskeini nahi die, pilotazaletasuna berpiztu eta ernarazteko

Ikasturte honetan martxan paratuko da Nafarroa eta Iparraldeko ikastoletan 'Ikaspilota', bultzatzaileen erranetan euskal pilotaren oinarri orokorrak modu atsegingarri batean ezagutu arazi, irakatsi eta maitatzen lagunduko duen proiektu bat. Xehetasun gehiagoren berri jakiteko, Gipuzkoan eta gure eskualdean proiektuaren bultzatzailea den Joxean Unsainengana hurbildu gara.

ttipi-ttapa: *Zergatik sortu da Ikaspilota?*

Ikaspilota: Euskal pilota gure kulturaren ondare garrantzitsuenetariko bat izanik, gaur egun bizi duen egoera benetan kezagarria delako.

ttipi-ttapa: *Nork sortu du?*

Ikaspilota: Ikastolen elkarteak, Jaurilaritzako Kultura sailak eta Euskadiko Pilota Federazioak kezka honetaz jabeturik, proiektu hau martxan jarri zuten 1991-92 ikasturtean.

ttipi-ttapa: *Zer lortu nahi duzue proiektu honekin?*

Ikaspilota: Bi asmo nagusi ditugu. Alde batetik, ikastetxeetako hezkuntz proiektuetan euskal pilota txertatzea edukin hezitzaile garrantzitsu bezala. Bestalde, pilotaren ezagutza eta jolaskera ezberdinak neska-mutil



guzietan eskeini nahi diegu, pilotazaletasuna berpiztu eta ernarazteko.

ttipi-ttapa: *Eta nola bideratuko duzue proiektu hau?*

Ikaspilota: Arlo

ezberdinetan lan egiteko asmoa dugu. Ikastetxeetan aurkezpen zuzena egiteaz gain, gorputz hezkuntzako ikasgaiaren irakasleentzat 'Pilota heziketa tresna' izeneko formakuntza

ikastaroak antolatuko ditugu, ikastetxeetan txapelketa berriak antolatuko ditugu 'Jo Pilota' kanpainarekin... Plastika arloan ere, irakasleari zuzendutako pilotagintza ikas-

taroak egingen dira, horrela, ikasleek pilota bat egiteko dituzten aukera ezberdinak ikasi dituzaten. Ikaspilotatik pilota tailerrak burutzeko behar dituen materialak bideratuko zaizkie irakasleei.

ttipi-ttapa: *Hizkuntz arloan ere zer bait egiteko asmoa duzue...*

Ikaspilota: Bai, izan ere hainbat dira arrazoiak hizkuntz arloan euskal pilota berreskuratzeko ahaleginak bultzatzeko. Lehen hezkuntzarako 'Pottolo Pilotaria' ipuin liburu didaktikoa argiratuko dugu. Bigarren hezkuntzako ikasleentzat eta helduentzat berriz, Jorge Oteiza ipuin lehiaketa antolatu da.

ttipi-ttapa: *Bertze asmorik?*

Ikaspilota: Proiektuan partaide diren ikastetxeen arteko topaketak egiteko asmoa dugu. Horretaz gain, euskal pilotaren erakusketara ibiltaria egin nahi dugu, aportazio kultural-didaktiko bat sortzeko helburu nagusiarekin.

ttipi-ttapa: *Aurten lehen aldiz Nafarroa eta Iparraldera ailegatuko zarete...*

Ikaspilota: 1991-92 ikasturtean Elkarte autonomoko ikastetxeetan hasi eta aurten Iparralde eta Nafarroara iritsi nahi dugu, Euskal herria guzira hedatzeko asmoarekin.

» Euskal pilota gure kulturaren ondare garrantzitsuenetariko bat izanik, gaur egun bizi duen egoera benetan kezagarria delako sortu da Ikaspilota »

Bigarren mailako aizkolari txapelketa, hilaren 28an burutuko da Elizondon

Gerendiango Pikabea anaiak eta Berroetako Ana Gartxitorena eta Lorentxi Eugi arpana txapelketetako irabazleak suertatu ziren Uharte Arakilen

Datorren ortzira-lean, urriak 28, burutuko da Elizondon Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala. Iganztiko bestetan jokatu-tako kanporaketaren ondotik, Daniel Vicente, Martin Jausaras, Patxi Larretxea, Manuel Gorriti eta Manuel Kañameres izanen da Elizondon parte hartuko dutenak.

Arpana txapelketak

Uharte Arakilen burututako saioan, Berroetako Ana Gartxitorena eta Lorentxi Eugi irabazi zuten arpana txapelketa. Larogitamar zentimetroko enborrari 8 ebaketa egiteko, 3' 57" erabili zuten, Lakuntzako bikoteak baino 17 segundu guttiago eta Berriozarkoak baino mi-



Lesio baten ondorioz Berako bikoteak ez zuten parte hartzerik izan. Halere, Kañameres eta Pikabea anaiek ikuskizun polita eskeini zuten.

nutu t'erdi guttiago. Gizonezkoetan, emozio haundiko norgehiagoka baten ondotik, Pikabea anaiek irabazi zieten Kañameres anaiei. Berako bikoteak ez zuten parte hartzerik

izan, bikotekide bat lesionatu baitzen. Pika-beatarrek 11 minutu eta 9 segundutan bukatu zuten lana, Kañamarestarrek baino 11 segundu guttiagotan. Uharte Arakilen bertan

burutu zen bigarren mailako herriz herri txapelketa eta honetan Basaburuako taldea nagusitu zen, Uterga, Etxauriko Arana eta Berriozarko taldeen aitzinetik.

Bota prenton

Goizuetako

II. Herri Olinpiada igande honetan burutuko da. Lais-terketa, karretilla apostua, zaku lais-terketa, koxkor apostua, trontza eta estraperloan neurtu beharko dituzte indarrak.

Street-Ball

saskibaloia txapelketa berezia jokatu da urriaren 29an Elizondoko udal polikiroldegian. Xehetasun gehiago kirol bulegoan.

Pilotaren Eguna

ospatu zuten Arkupeak jubilatutako elkar-peak urriaren 10ean. Modalitate ezberdina ikusteko aukera izan zuten.



Anjel Arrospide da Euskal Herriko aizkolarien txapelduna. Donato Larretxea hirugarrena izan zen eta Mikel Mindegia bortzgarrena.

Hamabostaldiko jokaldiak



Goizuetako II. Herri Olinpiada.

Jende guztiaren partehartzea (ez kirolarientzat bakarrik) bultzatu du 2. edizio honetan ere Umore Onak antolatutako herri olinpiadak. Talde bakoitzean emakume batek gutxienez parte hartu behar du.

Mikel Mindegia Euskalerriko txapelketan.

Griparen eraginez eta bizkarreko minak jota ia entrenatu gabe aurkeztu zen aizkolari zubietarra Euskalerriko txapelketara. 45 urte izan arren, bada ki bortzgarren postu hori baino lan itxurosoagoa egiten.

AGENDA EGUNEZ EGUN

LURRAREN EGUNA BERA

Urriaren 23an

Artisau erakusketa eta salmenta, Bortzirietako VIII. gasna lehiaketa eta salmenta, dantzariak, Berako trikitixa eta txaranga...

KONTZERTUAK

ERRATZU

Urriaren 29an

gaueko 11etan frontoian, 'Haurtzarrak', 'Zarama', 'La Polla Records' eta 'Pottoka Band'. Antolatzailea: Xorroxin Irratia.

DANTZAK

DONAMARIA

Urriaren 23an

eguerdiko 12,30etan Lesakako Tantarumairu dantza taldearen saioa 'Udazkeneko Jira-biraren' barnean.

GUARDIAKO BOTIKAK

Urriaren 17tik

23ra Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

Urriaren 24tik

30era Arantza, NARBARTE, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leiza.

Urriaren 31tik

azaroaren 6ra Etxalar, Doneztebe, Irurita, eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Txitxarroa angulekin



Xabier URMENETA Herriko Ostatua • ETXALAR •

Osagaiak

- 600grko txitxarroa • 50gr. angula • tipula erdia • patata bat
- piper min bat • 2 baratxuri pikor
- ardo txuria

Prestatzeko manera

Nabal xorrotx batekin txitxarroari hezurra kendu, plantxa bero baten gainean pasatu haragia-

ren aldetik eta erretiratu. Patata xerretan puxkatu eta olio beroan pixkat frejitu, ondoren labe ontzi batera pasa, gauza bera eginen dugu tipularekin. Hauen gainean, txitxarroa paratuko dugu larrua behiti duela, gatza eta ardo xuri pixkat erantsi eta labe beroan sartuko dugu 10 minutuz.

Baratxuri, pipermin eta angulekin

sofrito bat egin.

Txitxarroa, tipula eta patatekin fuente batean jarri, sofritoa erantsi eta gainetik perrexila bota eta buen probetxo!

BASERRIA



ZERRIKIA

- Zerrikumea (20 kilokoak): 3.900 pza.
- Zerri gizena (95-100): 142 pza/kilo
- Zerramak: 110 pza./kilo bizirik.



BEHIKIA

- Aretze gizenak: Idixkoak: Pza/kg. Kanal
- Extra 620-630
- 1.koa 590-600
- 2.koa 550-570

Urruxak: Pza/Kg. Kanal

- Extra 620
- 1.koa 580
- 2.koa 560
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 23-26.000 eta idixkoak 33-38.000 Pza.

Mestizoak: urruxak 39-45.000 eta idixkoak 40-45.000 pza.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 450-460 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 500 Pza /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



FRUTONDOAK

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoak 930.
- Udareondoa 930 pta.
- Gereziendoa 1.050 pta.



BARAZKIAK

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.
- Valentziar tipula zient. 250.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Azelga zientoa 400 pta.
- Pepino sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



ZINE KRITIKA

«Otsoa»

Jatorrizko Titulua: WOLF
Mike Nichols
EEBB - 1994



lektual haundikoak dira eta aldi berean, errealismo haundia du. Horregatik, "Wolf" otso-gizonaren pelikula arraroa da eta klasifikatzeko zail xamarra (batzuk terrore intelektualiza-

tua bezala sailkatu dute). Hori bai, terrore garbiko ariketa bat bezala proposatua dago.

Pelikula honek bertze 'goxoki' bat eskeintzen digu ere, Nicholson eta Michelle Pfeiffer-en berrelkartzea, hain zuzen. Duela hamar urte, *Eastwick-eko soginak* filmearen ondotik ez baitzuten elkarrekin lan egin. Aktore nagusiaren ustez, pelikula honekin "beldurrezko pelikulak duintasunez egiteko saikera" egin dute.

Badirudi ez dela apostu txarra izan eta inguruko zinema aretoetan arrakasta haundia izaten ari da momentuz.

Will Randall (Jack Nicholson) New Yorkeko liburu editore bat da. Pertsonalki zein profesionalki garai txarra igarotzen ari da eta ustekabean, zerbait ikaragarria gertatuko zaio: otso batek kozka egin eta otso-gizon bihurtuko du.

Bere emazteak abandonatu ondotik Randall Lauraz, bere jefe ohiaren alabaz, (Michelle Pfeiffer) maite-minduko da.

Denborarekin, otso-gizona izanik bertzeak baino gehiago dela pentsatuko du protagonistak, baina al-daketa honek bere alde iluna ere badu, eta hortik etorriko da tragedia.

Filme honetan, Mike Nichols zuzendaria lehen aldiz ausartuko da beldurrezko zinearekin. Hori bai, horrelako filmeetan interpretazio bikainak egiten dituen Jack Nicholson aktorean oinarrituko da. Aitzinetik ere, bertze lau pelikuletan elkarrekin lan egin dute zuzendari-aktore bikote honek.

Elkarrizketak maila inte-

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► Urriaren 12tik azaroaren 6ra.

BertizkoJauregiko erakusketa aretoan, 'Pirineoko zuhaitz eta zuhaixkak' eta 'Paisaiak' erakusketak.

ELIZONDO

► Urriaren 17tik azaroaren 5era.

Arizkunenean, Baztango Balleko Etxearen margo lanen erakusketa. Lanegunetan arratseko 7etatik 9etara.

FERIAK

ELIZONDO

► Urriaren 28 eta 29an

urteroko feria. Ortziralean, Elizondoko frontoian Arpana eta aizkolari txapelketa. Bertzalde, ortziraletan ere Baztandarren Biltzarrak duen lokala berrinauguratuko da. Gavez musika kontzertuak Gazte Sailak antolatua.

ARGAZKILARITZA

BAZTAN

► Argazkiak Berreskuratzeko II.

Kanpaina. Argazki biltzea eta originalen erreprodukzioa Urriaren. Erakusketa Azaroan. Informazioa Arizkunenea Kultur Etxean.

USO BESTA

SARA

► Urriaren 23an

Goizean pilota partida eta meza. Arratsaldean pilota desafioa eta indar jokoak.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

BERA. Pisua salgai Age-rra auzoan. ☎ 631358 (8,30etatik aitzinera).

Etxe edo baserri txiki bat alkilatuko nuke. ☎ 451746 (Paula, bulego orduetan).

BERA. Pisu amueblatua alkilatzeko. ☎ 580392.

IRUN. 100 m²ko pisua salgai Iparragirre karrikan, ganbara eta garaje plaza-ekin. 16.600.000 pezeta. ☎ (943) 628329.

LEGASA. Pisu bat alokatzen da. ☎ 943-614735.

NARBARTE. Pisua salgai bajera eta baratzearekin. Estrenatu gabea. ☎ 635219. Arratsetan.

DENETARIK

Gaztain pikorrak erosiko nituzke. ☎ 322164 (Alfredo - Iruña).

Erloju bat galdu da Le-

sakan, irailaren 15ean arratsalde. ☎ 627507.

Estufa salgai, 'Supra' markakoa, egoera onean. ☎ 635084 (gauez).

Iruñeko Luis Motondo karrikan bi neska behar dira pisua osatzeko. Pentsio erdia eta sukaldarako eskubidea. ☎ 237558.

Harategia eta janaridenda alkilatzeko Beran. ☎ 630869 (arratsaldeko 7etatik 9etara) eta 630553 (eguerdian, 12-3etara).

Mini-organoa SK-200 markakoa eta altabozko salgai. ☎ 510250.

Sukalde armarioak salgai prezio onean. ☎ 592157.

Megadrive kantsola, Mega CD compact diska-ekin eta 7 jokoekin salgai, 55.000 pezetatan. ☎ 510180.

120 bajutako akordeoia salgai. ☎ 637158.

Trikitixa bat erosiko nuke modu onean. ☎ 514007 (arratsaldeko 7etatik aurrera).

IBILGAILUAK

Peugeot 106 XN salgai, NA-AG matrikuladuna, 6.000 kilometro bertzerik ez. ☎ 580247.

Renault 19 TS gorria salgai. NA-AB matrikula, 24.000 kilometro eta ex-trekin. ☎ 514217.

Land Rover 88 Special, NA-I, motorrez ongi dabilena, salgai. ☎ 452258 (eguerdi eta arratsetan).

AZIENDAK

Dei urgentea. Abuztuaren 24ean, Gipuzkoatik bidalitako 'Eusko' zakurra (ile motza eta argia du) jaso zuen pertsona gurekin kontaktuan jartzea bihotzez eskertuko genuke. ☎ (943)311386.

Oilagor ehizirako zakur emea prezio onean salgai. ☎ 634204.

158 ardiren deretxoak saltzen ditut. ☎ 504492 (gaueko 9etatik aurrera).

Haragitako aziendak erosten ditut. ☎ 450160.

LANA

Kartelak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego orduetan).

Neska bat behar da Aralarko Guarda Etxean. As-teburuak libre izanik, urri-tik ekainera. ☎ 391000.

AGURRAK

L.L.ko Ixabeleri: Oso pozik gaude zure kante-kin. Bainan egun batean, letra entzun nahi genuke. La, la, la ... alde batera utzita. Muxu haundi bat. Zure lantegiko lagunak.

Estitxu eta Juanitori: '22-ara' saioan parte hartzea-gatik besarkada bat Gure Txokoa futbol elkarteko nesken partez, eta nola ez, entrenatzaile eta gu-raso guztien partetik.

Sunbillako Jose Antio-niori, aunitz urtez (urriak 16), bere arreba eta fa-miliaren partetik.

Donostiako Arta-ri, aunitz urtez (urriak 17) Berako familiaren partetik.

Izaskun Zubietarendako, zorionak zure 16. urtebe-tetzean eta Etxalarko gaupasan esperatzen zaitut.

Zorionak Berako Julen Zelaietari zure 14. urte-betetzean (urriak 8). 'Club de Admiradoras'.

Iturengo Javierrentzat zorionak zure urtebetzean lagunaren partetik.

Elizondoko Hilario Iri-goeneri bere urtebete-tzean zorionak eta muxu haundi bat Regi, Axi eta Nagoreren partetik.

Hiru neska gara eta gi-zonak behar ditugu. Ani-ma zaitetze. Erantzuna ttipi-ttapan. Sorginak.

Urdazubiko M^a Luz Etxaide eta Olabideko Juan M^a Mendibururi urriaren 22a eta 26an zo-riionak eta egun ona pasa ezazuela. Antonio eta Aliziak.



ZALAIN MOTOR

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA
 ☎ eta Faxa 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23
 • BERA •


Aukerako Autoak



Opel Corsa 1.5D / NA-V / 70.000 Km.

Opel Kadett 1.6S
 Ford Orion 1.3
 Ford Fiesta 1.1
 Volkswagen Polo
 Ford Orion 1.6D
 Ford Escort 1.6D
 Ford Orion 1.6D
 Ford escort 1.8D

SS-Z
 SS-T
 NAV
 NAP
 SS-AH
 SS-U
 SS-U
 NA-AB



Ford Fiesta 1.1 NA-V / 81.000 Km.

**Aukera zabala Diesel Merkeetan
 Auto errebisatuak eta garantia osokoak**



E Z K A L O

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 45 15 18 Tfnoan • DONEZTEBE
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

ETXEAK

Gaztelu. Bi familiendako 100m²ko etxea salgai, 40m²ko garajea eta 40m²ko terrazarekin.

Ziga. Moldatu beharreko etxea salgai. Eraikuntza proiektua egina du. 9.500.000 pta.

Arraioz. Etxe mobleztatua eta jardnaduna salgai. Prezio negoziagarria.

Bera. Baratzea duen etxea salgai. 12.600.000 pta.

Zozaia. Oronozko auzoa. Habitagarria den etxea salgai. 15.300.000 pta.

BASERRIAK

Etxalar. Baserri habitagarria. Prezio negoziagarria.

Narbarte. Sukalde mobleztatua eta 200 m²ko lur eremua duen baserria salgai. 11.500.000

PISUAK

Doneztebe. San Migel auzoan pisuak eta bajera komertzialak garajea eta ganbaradunak salgai zuzenean etxegilearen eskutik.

Doneztebe. 'Odriozola' hotelean pisuak eta apartamentuak 8.500.000tik aitzinera.

Doneztebe. 'Amaiur sukaldeak' dendaren gainean, luxuzko pisua kalefakzioa, ganbara eta sukalde ekipatuarekin salgai. 9.500.000 pta.

Doneztebe. Pisua sukalde ekipatuarekin salgai. 8.000.000 pta.

Legasa. Kanpo aldera ematen duen pisua salgai. 100m²koa eta 30m²ko garajearekin 8.500.000 pta.

Bera. 80m² dituen teilatu azpiko pisu garajeduna salgai. Sekulako aukera.

PISUAK

Lesaka. Bittiria karrikan pisua salgai. 7.800.000 pta.

Narbarte. Farmazia ondoan 100m²ko pisua, 16m²ko garajea eta 100m²ko baratzearekin salgai. 7.500.000 negoziagarriak.

BORDAK

Azpilkueta. 8.000m²ko lur eremua duen borda salgai. Aukera paregabea.

Goizueta. Teilatua eta barneko zurajea egoera onean duen borda salgai. pago artean dago kokatua. Paraje ezin hobea.

ALOKAIRUAK

Doneztebe. Pisua 30.000 pta. hilabeteko.

Narbarte. Pisua 35.000 pta. hilabeteko.

BAJERA KOMERTZIALAK

Irurita. Hostal Baztan ondoan, ordainketarako erraztasunekin, iturgintza eta bainu artikuluen negozioa salgai.

Doneztebe. 30m²ko bajeak salgai. prezio irriagarriak. Rosa Seminario karrikan. Torroba etxearen parean.

Lesaka. Lennon Ostatua salgai. prezio interesgarria.

Doneztebe. Aparan industrialdean pabilioi industrialak erakusketak, biltegi, jatetxe... 150m²tik gorakoak. Behar diren zerbitzu guztiekin eraikiak (aparkalekua...)

Baztan, Bidasoa, Ultzama, Lizarra, Tafalla eta Aragoi aldean 1.500.000 ptako etxeak ditugu.

Etxe, baserri, pisu, errota, bajera eta pabilioiak Nafarroa osoan. Eskura ordaintzen da. Lasa Jauna 234830.

Aukera paregabea

Edozein autorendako
GURPILAK

5.615 pezetatik aitzinera
IVA barne

ETA GAINERAT...
DOHAINIK

PARATU, BERDINDU ETA
NIBELAK IKUSKATU

BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABE
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO

Azaroaren 15era arteko eskeintza

PEDRO GARMENDIA, S.A.
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6




CONTINENTAL

NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK	NEURRIAK
145/70/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465

VIII. LURRAREN EGUNA

Urriak 23 • Igandea

- ❁ Dantzariak
- ❁ Berako Trikitixa
- ❁ Berako Txaranga
- ❁ Pilota Erakusketa
- ❁ Eskulangintza
- ❁ VIII Gasna Lehiaketa
eta salmenta
- ❁ Barazkiak
- ❁ Sagardoa eta taloak



BERA 1994